



EUROPAKO HAZKUNDEA

Europako ekonomiaren hazkundera moteldu da

Europar Batasuneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasak




Euroguneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasak




Eurostatek argitaratu duen informazioak baieztatzen du Europako ekonomia motelaldi batean sartuta dagoela. Hain zuzen ere, hirugarren hiruherenekoan BPGaren hazkundera tasa %1,9an kokatu zen Europar Batasunean eta %1,7an, berriz, Eurogunean. Bi kasuetan, laugarren hiruhereneko jarraian hazkundera tasa gutxitu da. Erritmo galera horrek ekonomia aurreikuspenak egiten dituzten erakundeen emaitzak baieztatzeko balio du, 2018rako zein 2019rako hazkundera aurreikuspenak gutxitu zituztelako. Azken hiruhereneko datuek espero zena baino bilakaera ahulxeagoa erakutsi zuten arren, oro har, hazkundera tasa bat datoz hedatzen ari den ekonomia baten irudiarekin eta inflazioaren gehikuntza gradual batekin. Beraz, oraindik ez da atzeraldirik aurreikusten.

Alemaniako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Frantziako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Italiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak



Portugaleko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak




Alemanian, isurketen araudi berriak automobilen ekoizpenean ekarri duen eten iragankorrak eta merkataritza alorreko tentsioen ondorioz esportazioek izan duten ahultzeak herrialde hartako BPGa %1,2an kokatu zuten urte arteko tasan, %-0,2an, berriz, hiruhileko arteko tasan neurtzen bada, 2015etik izan duen lehen uzkurdura baita. Frantziak ere indarra galdu zuen aurreko emaitzaren aldean. Kasu horretan, moteltze orokorra bizi zen, BPGaren osagai guztiek hazkunde txikiagoa jaso zutelako. Italian, barne eskariaren eta kanpo merkataritzaren ahultasunak eragin zuen apaltzea. Portugalen, berriz, kanpo eskariaren ekarpenak azaltzen du tonu galera txikia, hutsala izatetik negatiboa izatera pasa zelako.

Brexitaren negoziatioek sortu duten ziurgabetasuna handia bada ere, Erresuma Batuak %1,5 haztea lortu zuen, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gehiago, eta apiriletik ekainera bitartean hasi zen goranzko joerari jarraipena eman zion. Kontsumo pribatuaren bultzadak eta inbertsioaren susperraldiak, zenbaki go-riak atzean utzi baitzituen, azaltzen dute gorakada hori.

Herbehereetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak



Erresuma Batuko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak

